

NORENA DA ANTZINATEA?

Atenasek eta Skopjek Mazedoniari buruz lortutako akordioak hautsak harrotu ditu

ATZERRIA / Dabid Lazkanaiturburu

Mazedoniako Errepublikako eta Greziako lehen ministroak, Zoran Zaev eta Alexis Tsipras, Prespes lakuan akordioa sinatu ondoren. Azpian, akordioaren aurkariak Skopjeko Parlamentuaren aurrean.
S. MITROLIDIS- R. ATANASOVSKI
AFP

Nor da egun antzinateko Mazedoniaren oinordekoa? Hau da, nor da egungo Greziaren eta Balkanen artean Filipok hedatu zuen erreinuaren oinordekoa? Ez da ez kontu hutsala estatu xume izatetik Greziako estatu-hiri guztiak mendean hartzera iragan zen erreinuaren oinordekotza. Izan ere, adibidez, nork aldarrika deza ke beretzat Alexandro Handia, Mediterraneotik Indiaraino munduak ezagutu duen inperiorik erraldioenatarikoa osatu zuen konkistatzaile famatua?

Historialarien arteko eztabaida dirudien arren, Europak azken 27 urteotan bizi izan duen auzirik xebleena izan da “Mazedonia” hitza erabiltzeko eskubidearen ingurukoa. Xeblea baina inolaz ere ez txantxetakoa, ez behintzat Atenas eta Skopjeko gobernuentzat. Europako Batasunak eta NATOk berak ere arduraz jarraitu dute auzia, Balkanetako herriak Mendebaldera gerturatzea, edo, nahiago bada, Mendebaldea Balkanetara gerturatzea, oztopatu duelako.

Antzinatea eztabaidagai duen auzia aspaldikoa da, baina 1991n azaleratu zen, Sobietar Batasuna eta Varsoviako Ituna desagertu ostean Josip Broz *Tito* mariskalaren Jugoslavia suntsitzean. Urte hartako irailaren 1ean independentzia aldarrikatu zuen 1944tik ordu-ra arte, *Tito* mariskalak erabakita, Jugoslaviako zati izandako Mazedoniako Errepublikak.

EZTA PENTSATU ERE...

Berehala, Europako Batasunean sartzeko eskaera egiteaz gain, Konstituzioa aldatu zuen

27 urtez luzatutako gatazka konpondu asmoz akordioa sinatu dute Greziak eta Mazedoniako Errepublikak, Jugoslavia ohiko parte izandako lurraldeak etorkizunean hartuko duen «Ipar Mazedonia» izenaren inguruan. Bi aldeek amore eman behar izan dute, negoziazio prozesu guztietan bezala, baina bateko nahiz besteko oposizioek iragarri dute jada akordioaren aurka egingo dutela.



Mazedoniak. Bere izaera “sozialista” ukatzeaz gain, edo agian ukatzearen truke, mazedoniar izaera bilakatu zuen ardatz nagusi, hizkuntzatik aberri-rra –“erbestean” bizi ziren mazedoniarrek ahaztu gabe-. Horren adibide edo seinale, “Verginako Izarra” bilakatu zen Mazedoniako Errepublikaren ikur, bere hamasei argi izpiekin. Hori, baina, gehiegi zen Greziarentzat, are gehiago izarrari izena ematen dion Vergina herria Grezia barneko Mazedonia eskualdean dagoe la kontuan hartuta. 1977an, bertan kokatutako errege mazedoniarren hilobietan lurperatutako kofre batean grabatuta aurkitu zuten Mazedoniako Errepublikak ikurtzat hartutako “Verginako Izarra”.

Auziak hautsak harrotu zituen Atenasen eta greziar alderdi ia guztiek bat egin zuten Mazedoniako Errepublika jaioberriaren «usurpazioa» salatzeke, baita Skopjek Greziako Mazedonia eskualdea, Mazedonia historikoaren muina, menpean hartzeko egindako «saiakerari» aurre egiteko ere. Horrela bada, gaur egun arte iraun duen betoa ezarri zion Greziak bere iparrean sortutako estatuari.

GORABEHERA HANDIAK

1991n hasitako auziak gorabehera handiak bizi izan ditu ordutik. Greziak ez du amore eman eta horrek erdibideak bilatzen saiatzera behartu ditu bai Skopjeko Gobernuak bai nazioartea bera ere. 1993ean, Nazio Batuen Erakundeak estatu berria bere baitan onartu zuen, baina Jugoslavia Ohiko Mazedoniako Errepublikaren (FYROM) behin-behineko izenarekin. Orduan ekin zion NBEk bi aldeen arteko negoziaketak bultzatzeari.

Mazedonia nork eskuratu lehian aritu ziren Balkanetako Bigarren Gerran (1913) Serbia, Grezia eta Bulgaria. Mendeetako bilakaeraren ondorioz etnien bidegurutze izan da herrialdea

Greziak, ordea, ez zuen konpromisoa onartu, eta, negoziaketak arbuia ez ezik, blokeo ekonomikoa ere ezarri zion Mazedoniako Errepublikari, Salonikako porturen atea (Greziako Mazedoniako hiri-burua) enpresa mazedoniarrei itxiz. NATOn sartzeko ate joka ere bazebilen Mazedonia, eta, egoera erabat gaiztotuta zegoela ikusita, Ameriketako Estatu Batuek parte hartzea erabaki zuten. Horrela bada, bi aldeek 1995an Washingtonen sinatu zuten akordioa betez, Skopjeko Gobernuak “Verginako Izarra” bere banderatik kendu eta zortzi ardatzeko eguzki bategatik ordezkatu zuen.

Luzaroan, egoerak bere horretan iraun zuen, iaz arte. Ordura arte, Europar Batasunak eta NATOk Mazedoniako Errepublika bere ingurura hurbiltzeko egindako mugimendu guztiak oztopatzen zituen Greziak, bietako kide izanik bere beto eskubidea ezarriz.

GOBERNU ALDAKETA SKOPJEN

Greziaren jarreratik harago, Mazedoniako Errepublikak berak ere badu auziak ia 30 urte iraun izanaren erantzukizuna. Independentziaren unetik bertatik, batez ere Kosovoko gerraren eraginez, gutxiengo albaniarrekin tirabirak izan dira nagusi bertan azken hamarkadotan. Mazedonian bizi diren albaniarrek (biztanleen %30 eta %40 artean), ez dute sekula begi onez ikusi Errepublika «mazedoniantzeko prozesu esentzialista», boteretik bertatik VMRO-DPMNE alderdiak bultzatu izan duena.

Mazedoniako albaniar politikariak ere ez dira inolaz ere errugabeak, Kosovoko gerra amaitu eta bi urtera, 2001ean, UÇK-ko gerrillaren talde bati ateak zabaltzeko eta, albaniarren

Aditu batzuen ustez, Errusiaren itzala gero eta nabariagoa da Balkanetan, eta, kezkatuta, presio egin omen die Europar Batasunak Atenasi eta Skopjeri akordio bat lor zezaten

aurkako diskriminazioa aitzakia, gerra Tetovo hiriraino eramane zutelako. Jugoslavia desagertzea eragiteaz gain hamar urte luzez ehunka milaka hildako eta izugarritzko txikizioa eragin zituen liskarra berpizteko zorian zen berriz Balkanetan; nazioarteak bultzatutako Ohri lakuko akordioak lortu zuen azkenean amildegirako

Izendatzearen inguruko eztabaida luzea

27 urte luze iraun du nazioarteko diplomaziak ezagutu izan duen auzirik arraroenatarikoak, Greziaren eta Jugoslavia Ohiko Mazedoniako Errepublikaren (FYROM) artekoak: nola izendatu Balkanetan kokatutako herrialde txiki eta gaztea, 2,1 milioi biztanlekoa.



Aro amankomunaren V-XIX mende artean, Eslaviarren eta turkoen iritsierak nahastu egin zuen herritarren jatorria, baina Mazedoniaren izenak hortxe dirau egungo FYROMen, Greziako iparraldean -Mazedoniako erresuma historikoaren bihotza bertan egon zen- eta Bulgariako hainbat eskualdetan.

1991: Jugoslavia ohiko **Mazedoniako Errepublika** bere independentzia aldarrikatu zuen. Greziak esan zuen izendapen horrek bere eskualdea mendean hartzea zuela helburu eta antzinako Greziaren herentzia bereganatu nahi izatea leporatu zion.

1993: Nazio Batuen Erakundek (NBE) Mazedonia onartu zuen, baina FYROM izendapenarekin.

2008: ARYM-eko agintariak **Mazedoniako Errepublika (Skopje)** izena onartzeko prest azaldu ziren, NATOn eta Europar Batasunean sartzearen truke. Grezia aurka azaldu zen eta betoa ezarri zuen.

2017: **Zoran Zaev** lehen ministroaren gobernu mazedoniarra ados zegoen konpromiso baten alde lan egitearekin betiere NATOn eta EBn sartu ahal izateko helburuarekin.

2018ko ekaina: Greziak FYROMen izen berria, **Ipar Mazedoniako Errepublika**, onartu du. Hala ere, auzia ez da erabat konpondu, bi herrialdeetako oposizioak gogori direlako akordioa salatzen. Bi parlamentuek akordioa onartu behar dute eta erreferendumean baieztatu beharko dute Mazedoniako hautesleek

bidea erakusten zuen egoera arriskutsua konpontzea.

Akordioak akordio, Grezia eta Mazedoniaren arteko auziak bere horretan zirauen, 2017an Alderdi Sozialdemokratik hauteskundeak irabazi eta Zoran Zaev lehen ministroak Skopjen Gobernu berria osatu arte. Ordura bitartean, VMRO-DPMNE alderdi eskuindarra Alexander Handiaren estatuak eraikitzen, bere eta bere arbasoen izenekin aireportuak eta bestelako azpiegiturak... baitaiatzen aritua zen, Atenasen haserreareagotuz. Zaevek, ordea, Alexis Tsipras Greziako lehen ministroarekin biltzea erabaki zuen, bi aldeek arteko harremanak berreskuratzea xede. Syrizako buruak, bere aldetik, Davoseko gailurra aprobetxatu zuen urtarrilean berriro Mazedoniako lehen ministroarekin bildu eta negoziazioak bultzatzeko.

AKORDIOA: «IPAR MAZEDONIA»

Bost hilabeteren bueltan, telefonoz akordioa adostu zuten ekainaren 12an bi agintariek, aurreko igandean bi herrialdeen artean muga egiten duen Prespes lakuan sinatu zutena. Mazedoniako delegazioak txalupaz zeharkatu zuen lakua, Greziako aldean lur hartuz. Skopjeko lehen ministro batek lur greziarra zapaltzen zuen lehen aldia zen. Era berean, Tsiprasek gauza bera egin zuen eta Mazedoniako Errepublikako lurra zapaldu zuen estreinakoz.

Nikos Kotzias eta Nikola Dimitrov Greziako eta Mazedoniako Atzerri ministroek sinatutako akordioaren arabera, bi aldeek “Ipar Mazedonia” izen berria onartzen dute Mazedoniako Errepublikarentzat. Azkenengo 25 urteotan bitartekari lanak egin dituen Nazio

Batuetako Matthew Nimetz ere ekitaldian izan zen. Baita Federica Mogherini Europar Batasuneko diplomazia arduraduna ere. Hainbat adituk egindako irakurketaren arabera, Errusiak gero eta presentzia nabariagoa du Balkanetan, eta horrek kezka sortzen du Europar Batasunean. Horregatik, Bruselak presio egin omen die Atenasi eta Skopjeri behingoz akordio batera hel zitezen.

BARNE PRESIOAK BI ALDEETAN

Benetako presioak, ordea, barnean dituzte bi aldeek. Tsipras lehen ministroak zentsura mozio bat gainditu behar izan zuen akordioaren sinaduraren bezperan, Demokrazia Berria talde eskuindarrak aurkeztuta. Inkestek bozen %30 ematen dizkiote Kyriakos Mitsotakis-en alderdiari, 2015ra arte boterean egon zena. Orduan oposizioa bidali zuen Syriza koalizioari, berriz, botoen %15 soilik ematen dizkiote.

Horrela bada, eskuinak Tsipras are gehiago ahultzeko baliatu nahi du egoera, eta «traiziotzat» jo du akordioa, nahiz eta bere garaian Demokrazia Berria taldea antzeko soluzio baten alde agertu. Zentsura mozioa saihesteko, Syriza gobernuko parte den Greziar Independententeak (ANEL) talde helenistako diputatuen babesa izan zuen –batena izan ezik–. Hala ere, ANELeko buru eta Defentsa ministroa den Panos Kammenosek ez duela akordioa Parlamentuan babestuko ohartarazi du, eta diputatuen hiru bostenaren babesa behar izatea exijitu du.

Skopjen ere hautsak harrotu ditu akordioak. Kale istiluak izan dira, baita atxilotuak eskuineko oposizioko kideen artean ere. Parlamentuak akordioa babestu du, baina Gjorge



Alexandro Handiaren estatuak, goian, Mazedoniako Errepublikako hiriburuan, Skopjen, eta, behean, Tesalonikan, Greziako Mazedonia eskualdean.
R. ATANASOVSKI-SMITROLIDIS/
AFP

Ivanov presidenteak beto esku-bidea baliatuko duela iragarri du. Horrek onarpena atzeratzea baino ez du lortuko. Aitzitik, akordioa erreferendumean onartu beharko dute mazedoniarrek urtea amaitu baino lehen. Hor dago, beraz, gakoa.

AZKEN ZEHAZTASUNETARAINO

Lortutako akordioa zehatza da oso, eta Alexandro Handiaren estatuetatik ardoaren izenda-

penerainoko arloak jorratzen ditu. Adostutako “Ipar Mazedonia” izenak, gainera, autoen matrikulatan (NM) eta herritarren nortasun agirietan izan beharko du isla.

Era berean, bi aldeek onartu dute “Mazedonia” eta “mazedoniar” hitzek errealitate historiko eta kultural desberdinei egiten dietela erreferentzia. Hizkuntzari dagokienez, akordioak dio Ipar Mazedonian

hitz egiten den mazedoniera Hegoaldeko Eslaviar taldeko hizkuntza bat dela, VI. mendetik aurrera eskualdean hedatu zena. Hau da, ez dela Alexander Handiak hitz egiten zuen hizkuntza. Azken horren eta bere aita Filiporen omenez Skopjen eraiki diren estatutatan, berriz, plaka bana jarriko da, Greziaren historiaren parte direla azalduz. “Verginako Izarra”, noski, ezingo du erabili Ipar Mazedoniak. Azkenik, iparrean zein hegoan ekoizten diren ardoari eta *halva* postreari dagokienez, jatorri izenen inguruko akordioak bultzatuko dituzte bi gobernuak.

BALKANETAKO MAMUAK

Bistan denez, izen soil batek milaka auzi zabal ditzake historia korapilatsua duen Balkanetan, eta Tsiprasek eta Zaevek eskualde osorako eredu bezala aurkeztu dute akordioa. Ez zaie arrazoirik falta, baina Balkanez hitz egiten ari garela kontuan izanik, akordioa ezezean gelditzeko arriskua ere hor dago. Lehen ministro mazedoniarrek oposizio latza du aurrean eta Tsiprasek hauteskundeak gainditu beharko ditu urtebete barru. Eta 2015ean Europar Batasunarekin izandako lehian amore eman izanak eta hiru urtez ezarritako murrizketek Syrizarren proiektu eraldatzailea ahuldu dute.

Ikusteko dago, beraz, zer gertatuko den. Ikusiko ez duena, seguru, Alexandro Handia da. Duela 2.300 urte ezagutzen zen ia mundu osoa bere mende hartu zuen konkistatzaileak zer pentsatuko ote luke berpizterik balu bere ondorengoen arteko ika-mikok ikusita? Agian, ahulen patua dela antzinateko handitasuna aldarrikatu behar izatea egungo txikitetasuna estali nahian...